



EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 27koa, Hezkuntza sailburuordearena, zeinaren bidez luzatu egiten baita dirulaguntzak gauzatzeko eta justifikatzeko epea, deialdi honi dagokionez: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei dirulaguntzak ematea, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko «Sare_Hezkuntza Gelan» berrikuntza-proiektuan parte har dezaten. (L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak)

2019ko martxoaren 4an, Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko martxoaren 4ko Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei dei egin zitzaion, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko «Sare_Hezkuntza Gelan» berrikuntza-proiektuan parte har zezaten (L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak).

Deialdi haren xedea zen EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei dei egitea, «Sare_Hezkuntza Gelan» hezkuntza-berrikuntzako proiektuan parte har zezaten. Proiektuak helburu hauek ditu:

- Metodologia, teknologia, material berrien eta baliabide digitalen erabilera sustatzea ikasgelan, irakasteko eta ikasteko prozesuan.
- Irakasteko eta ikasteko prozesuan, material eta baliabide digitalak egitea eta horiek geletan erabiltzea bultzatzea. Materialak denon eskura izango dira, EAEko hezkuntza-sistemaren barruan.
- Prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa ematea, ikastetxeetan metodologia-aldaketa gauzatzeko.

Halaber, ebazpen horren 14. artikuluan xedatzen denaren arabera, erakunde onuradunek, 2020ko ekainaren 15a baino lehen, aurkeztutako proiektuaren betearazpenari buruzko justifikazio-memoria ekonomikoa (IV. eranskina) aurkeztu behar zuten «Herri-ikastetxeak/Deialdiak» aplikazio informatikoan; memoria horretan, banakatuta jaso behar dira onartutako proiektuari egoztekoak diren gastu guztiak eta gastuok jasota dauden fakturaren erreferentzia.

Bestetik, 2019ko maiatzaren 10ean, erakunde onuradunei deialdiaren ebazpenaren berri eman zitzaion, Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko maiatzaren 10eko Ebazpenaren bidez, zeinaren bitartez ebazten baita Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko «Sare_Hezkuntza Gelan» berrikuntza-proiektuan parte hartzeko deialdia. (L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak).

Covid-19aren pandemiak eragindako egoerak, ordea, ikastetxeen jarduera normala eragotzi du.

Horrenbestez, jarduera batzuk aurreikusita eduki arren Covid-19aren ondoriozko alerta sanitarioko egoera dela-eta jarduerok zehaztutako epean egin ezin izan dituzten ikastetxeen kasuan, Ebazpen honen bidez, luzatu egiten dira aipatu 2019ko maiatzaren 10eko Ebazpenarekin eman ziren dirulaguntzak betearazteko eta horien justifikazioa aurkezteko epeak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Azaroaren 6ra arte luzatzea Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko maiatzaren 10eko Ebazpenaren bidez diruz lagundutako jarduera betearazteko epea. Ebazpen horren bidez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko «Sare_Hezkuntza Gelan» berrikuntza-proiektuan



parte hartzeko deialdia ebatzi zen. (L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia).

Bigarrena.- Azaroaren 6ra arte luzatzea aurkeztutako proiektuaren justifikazio-memoria ekonomikoa (IV. eranskina) aurkezteko epea; memoria horretan, banakatuta jaso behar dira onartutako proiektuari egoztekoak diren gastu guztiak eta gastuok jasota dauden fakturaren erreferentzia.

Hirugarrena.- Oraindik gauzatu gabeko jarduera aurreikusiren bat duten ikastetxeek, 2020ko ekainaren 15a baino lehen, dokumentu bat aurkeztu beharko dute aipatu jarduera eta hura gauzatzeko aurreikusitako plangintza deskribatzeko.

Laugarrena.- Aipatu luzapenak gorabehera, proiektua amaituta duten erakunde onuradunek 2020ko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute dokumentazioa, deialdian gaitutako mekanismoak baliatuta.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka egiteko, ikastetxeek erreklamazioa jar diezaiokete Hezkuntzako sailburuordeari, hamar eguneko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Hezkuntzako sailburuordea
MIREN MAITE ALONSO ARANA